

# KONTUAN HARTU



# GAITZATEN

Etxaldeko Emakumeen eta  
**Durangaldeko** Berdintasun-  
teknikarien arteko **gogoeta**  
**kolektiboko** esperientzia, **emakume**  
**baserritarren** bizimodua hobetzeko  
**politika publikoak** eraikitzeko.



KONTUAN HARTU GAITZATEN

Etxaldeko Emakumeak Durangaldeko Berdintasun sailekin harremanetan jarri ginen 2017an erakundeen eta emakume baserritarren arteko eztabaida eragiteko asmoz. Harremanetan jartzearen helburua zen emakume baserritarrak ikusarazi eta kontuan hartzeaz gain, haien bizimodua hobetu eta haien ekarpenak balioetsiko dituzten politika publikoak eraikitzeko gakoak elkarrekin identifikatzea.

Sistematizazio honetan, antzeko eztabaidari ekin nahi dioten beste eskualde edo udal batzuetarako erabilgarriak izan daitezkeen tresna batzuk jaso ditugu.

## AURKEZPENA

Euskal Herri osoko elikadura-burujabetzaren aldeko mugimendua izateko sortu zen **Etxalde**. Etxalderen baitan, borroka honetan ibilbide luzea eginga duten nekazaritza eta abeltzaintzaren alorreko erakunde eta pertsonak daude. Baina, jardunetik bertatik, elikadura-burujabetzaren eraikuntzan lagundu nahi duten pertsona eta erakunde aliatuek ere bat egiten dute berarekin.

**Etxaldeko Emakumeak** hainbat soslaietako emakumeen talde irekia da, emakume baserritarrak, landa-eremuko emakumeak eta elikadura-burujabetzaren proposamenarekin bat egiten duten emakumeak. Nekazaritzan, abeltzaintzan eta elikagaien ekoizpenean dihardugun emakumeok hainbat soslai eta bizimodu ditugu, eta aniztasun hori gu aberasteko aukera bat dela uste dugu. Gure identitatearen muinean emakume baserritarrak gaude, eta identitate bikoitz horretatik, emakume eta baserritar garen aldetik, gure ekarpena egin nahi dugu elikadura-burujabetzaren eraikuntzan.

Amets asko ditugu, eta horiek lortzeko, bi norabidetan eragitea da gure xedea: alde batetik, elikadura-burujabetza kutsatu nahi dugu feminismoan, eta bestetik, feminismoa kutsatu nahi dugu nekazarien mugimenduan.

Lanerako ardatzetako bat populazio baserritarra duten udalerrri batzuetako berdintasun-teknikariekin elkarlanean jarduten hastea izan da. Hortaz, Etxaldeko Emakumeen eta Abadiño, Elorrio eta Berrizko udalerrietako berdintasun-teknikarien artean bizi izandako esperientzia jaso dugu dokumentu honetan. Prozesua 2017ko maiatzaren eta 2018ko urtarrilaren artean gauzatu zen, eta interes handiarekin hartu zuten parte denek.

Hainbat bilera eta bi tailer egin genituen aurretik eginda zeuden diagnostiko orokorrago batzuk osatzeko eta kokatzeko, eta hortik aurrera, emakume baserritarren parte-hartze politiko eta publikoa ikusarazteko, aintzat hartzeko eta handitzeko tokiko jardun eta politika batzuk aldatzeko edo sustatzeko aukerak zein ziren denen artean baloratzeko.

Dokumentuak honako atal hauek jaso ditu:

1. Emakume baserritarren egoera orokorraren diagnostikoa
2. Lanerako proposamena
3. Tailerren metodologia
4. Bibliografia eta material interesgarria.

Lan hau zabalik dago. Eta aberastea espero dugu; alde batetik, abian jarri diren dinamikei buruz herrietan egingo diren balorazioekin; eta bestetik, beste eskualde batzuetan ere antzeko tailerrak eginez.

## DIAGNOSTIKOA: EMAKUME BASERRITARREN ARGAZKIA

Lan honen abiapuntua honako azterlan hauek izan ziren: Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiek landa-eremuetako etxeko indarkeriari buruz egindako diagnostikoak; Titulartasun Partekatuari buruz CERESek egindako txostena, Landa-eremuko Genero Berdintasunari buruzko Diagnostikoa eta HAZIk 2016an egindako azterlana.<sup>1</sup>

Indarkeriari buruzko txostenek agerian uzten dute landa-eremuetako emakumeak bereziki zaugarriak direla, eta horren arrazoiak askotarikoak dira:

1. Denak ezagunak diren inguru hurbilean, estuagoa da rola eta familiarekin eta maitasun-harremanekin loturiko iguripenak betetzeko eragiten den zaintza soziala. **Familiaren ikuspegia** zaindu beharreko ondasun gorentzat hartzen da oraindik, eta auzokoen inplikaziorik ezak indarkeria matxista **gai pribatutzat** jotzea eragiten du; eta horren oinarria da "**ikuspegi**

**familiazalea**", emakumeak bikoteari, familiaren batasunari eustera eramaten dituen, zeinaren arabera, harreman bortitza haustea porrota den.

2. Herria **kontrol sozialerako oinarritzko eremua** da; mundu guztiak daki auzoan zer gertatzen den, baina horrek ez du esan nahi auzokoak posizionatuta daudenik genero-indarkeriaren aurrean. Kontrol hori estres-iturri gehigarria da, lotsa eta sufrimendua ere eragiten dituena; baina ez dirudi erasotzaileei gauza bera gertatzen zaienik. Inguruko aldetik laguntzarik eta inplikaziorik ez jasotzeak, eta erasotzailearekiko konplizitateak (laguntza ukatzeagatik), zigorgabetasun- edo inpunitate-zentzazioa eragiten du erasotzaileengan.

3. Aurrekoarekin batera, halako inguruetan, mehatxuak beldur handiagoarekin bizitzen dira, erasotzailea **beti dagoelako gertu**.

4. Beharrezko **arreta-zerbitzuak** ez daude udalerrian bertan. Lan eta ibilgailu propioa

<sup>1</sup> Ikusi bibliografia

edo garraio publikorako irispide erraza duten emakumeak arazorik gabe joan eta etortzen dira, baina diru-sarrera txikiak dituzten emakumeak, aldiz, ez dira oinarrizko baliabide horietara joaten, garraio-arazoengatik.

5. Landa-eremuko **indarkeria matxistako** modu **espezifikoak** badira, zigorgabe geratzen direnak ez direlako indarkeria matxistarekin lotzen; landa-eremuetako ekonomian berezko diren indarkeria ekonomikoa, ikusten ez jazartzen ez dena: esaterako, bikotekide ohiak animalien edo uztaren kontra eragindako indarkeria.

Ekonomiaren ikuspegitik ere emakume baserritarrek bizi duten lan-egoera bereziak ere urrakortasuna eragiten du; baserrietan lan egiten dute, baina ez dira jabeak eta ez daude alta emanda, eta horrek prekarietate handia eragiten du harremana hautsi ondoren.

6. Bikote mistoen arteko (bertako gizonak, emakume atzerritarrak) botere-harremanak

aipatu behar ditugu bereziki; horietan, atzerriko emakumeenganako aurreiritziek nabarmendu egiten dute egoera hori, batez ere gizona eta haren familia herrikoak badira. Bai eta etxeko langile gisa baserrietan bizi eta gehiegikeriak pairatzen egon daitezkeen atzerriko emakumeen kasuak ere, erabat isolaturik daude eta.

7. Horren guztiaren **alde positiboa** da herri txikiek "**zaintza soziala**" eragiteko potentzial handia dutela, eta hori emakumeen mesederako izateaz gain, babesgarri ere izan daiteke. Aipatzen den beste **alderdi positibo** bat da udalerrri txikietan lan egiten duten profesionalak herritarrekin **harreman estuagoa** dutela.

Emakundek egindako Landa-eremuetako Genero-berdintasunari buruzko diagnostikotik eta HAZIk 2016an egindako azterlanetik beste datu batzuk ere atera ditugu, eta honako hauxe erakusten digute, besteak beste: landa-eremuan gero eta gizon gehiago direla, eta gizonak eta emakumeak egiten duten denboraren okupazioa oso desberdina dela:

- ✓ Landa-eremuan, emakumeen % 69k zerbitzuen sektorean dihardu (hezkuntza, bulegoa, denda, administrazio publikoa eta pertsona nagusien arreta), eta **% 19 baino ez dabil lehenengo sektorearekin zerikusia duten jardueretan**. Emakume profesionalak dira, 35 eta 65 urte artean dituztenak eta, gehienak, landa-eremutik datoz, eta haien familiek nekazaritzan jardun izan dute batez ere. Lanaldi osoko nekazari eta abeltzainak dira, eta haietako asko lantzen duten ustiategiaren buru dira.

- ✓ Ustiategi profesionaletatik, % 25ek emakume bat dute titular, % 58k gizonak eta gainerako % 18 sozietate gisa antolatuta daude. Emakume titularrak batez ere ustiategi txikietan nabarmentzen dira: 2 ha baino gutxiagoko ustiategien jabeak dira emakume titularren % 47,5.
- ✓ Beste alde batetik, nekazaritan diharduen populazioaren % 28,2 emakumeak dira, eta % 71,8 gizonak. Baina horren atzean familia-laguntza dago. Bereziki diskriminatzailea den lan-figura bat da; izan ere, kontraturik gabe, soldatarik gabe lan egin eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen ez dutenez, legezko inolako onarpenik gabe lan egiten duten pertsonak dira. Emakumeen ia % 50 familiako lanekuaren barruan sartzen dira.
- ✓ 2009/2010 ikasturtean, nekazaritzako jardueren gradu ertaineko titulurako matrikulaturiko ikasleen artean, % 24,7 emakumeak ziren eta % 75,3 gizonak; eta goi mailako titulazioan, % 26,9 emakumeak eta % 73,1 gizonak. 2009ko Nekazaritzako Erroldaren arabera, nekazaritzako ikasketak –unibertsitate ikasketa zein ikasketa profesionalak– dituzten eta ustiategien jabe diren emakumeak ez dira % 1era iristen, eta % 3 dira nekazaritza alorreko bestelako formazioen bat dutenak.
- ✓ **Denborak.** Sektore honetan ez dago ordutegi finkorik. Hori dela eta, askoz zailagoa da antolatzea, bai familia eta lana uztartzeko, bai jarduera publikoetan parte hartzeko: elkarteetan, sindikatuetan edo aisialdiko elkarteetan. Zaila da zehaztea non hasten den lan produktiboa eta non lan erreproduktiboa lana.
- ✓ Kasu askotan, emakumeek lan erreproduktiboa eta lan produktiboa hartzen dituzte bere gain, eta gizonak, aldiz, lan produktiboaz soilik arduratzen dira. **Absentzia bikoitza**, horrela deitzen zaio ez eremu batez ez besteaz behar bezala arduratzen ez delako sentipenari, eta porrot eta estres zentzazio handia eragiten du.
- ✓ **Aisialdiaz gozatzeko moduan ere aldeak daude eta nabarmenagoak dira generoari dagozkion aldeak, adinari edo jarduten duten azpisektoreari dagozkionak baino.**
- ✓ **Erakunde politiko eta profesionaletan, parte hartzen duten pertsonen % 69 gizonak dira, eta % 31 emakumeak, beraz, erakunde horiek oso maskulinizatuak daude.** Beste alde batetik, elkarte sozial, kultural edo erlijiosoetako parte-hartzeari dagokionez, parte-hartzea ia parekoa da, hots, % 51 emakumeak dira, eta % 49 gizonak. Emakumeen ordezkariak publikoak eskasa da, eta badira hainbat arrazoi: denborarik eza, familia eta lana uztartzeko oztopoak, orain arte “gizonena” izan den eremu batean sartzea, eta horrek “emakumeenak ez diren” gauzetan parte ez hartzeko dakarren presio soziala.

Diagnostiko horiei gure diagnostiko propioa gehitu diogu; emakume baserritarrek eta berdintasun teknikariek tailerretan egindakoa, eta aurrekoen osagarria dena.

### 1. Baserrian eta hirian denbora kudeatzeko desberdintasunak

Baserrian eguneroko zeregin asko daude denbora handia behar dutenak eta hirietako emakumeek irudikatu ere egiten ez dituztenak: etxe handia, garbiketa-lan handiagoa, sua egitea, ortuko lana, oiloak; horrek izugarri mugatzen du emakume horien aisialdirako denbora. Hiriguneetatik urruti bizitzeak ere eguneko ordu gehiago okupatuta edukitzea eragiten du, eta emakumeen autonomia jaitسي; batez ere ibilgailu propioarik ez badute.

Denbora murriztagoa da, gainera, beste faktore batzuk gehitzen badira: animaliak zaindu beharrak esan nahi du ezin direla oso urrutira joan, egunero itzuli behar dutela, eta horrek eskatzen dituen ordutegiengatik, bizimodu politiko, sozial edo kulturalean parte hartzeko prestutasuna murrizten du. Gauza bera gertatzen da proiektu dibertsifikatuenetan.

Urtaroak ere garrantzitsuak dira, nekazaritzan lan handia izaten da martxotik azarora; neguan, barneko lanak egin behar dira batik bat, beste denbora batzuk daude eta proposamen sozialetan parte hartzeko denbora gehiago izaten da.

### 2. Bizimodu soziala

Denbora gutxiago edukitzean, aukera gutxiago daude bizimodu soziala izateko. Eta

bizimodu sozial horrek ere askotarikoa izateko aukera gutxiago ditu; auzoetan edo leku isolatueta, pertsonak eta denbora emateko aukerak askoz gutxiago dira

Zalantzak daude udalerrietan antolatzen diren jarduerak erakargarriak ote diren isolatuen bizi diren emakumeentzat, joan-etorriak eskatzen dien ahaleginagatik eta parte hartzeko premiarik sentitzen ez dutelako.

Emakume baserritarrek gehien parte hartzen duten espazioak honako hauek dira:

- Eliza eta harekin zerikusia duten jarduerak
- Merkatua: oso hedatuta daude eta leku egokia dira bizimodu sozialerako.

Gainera:

- Topagune zen auzolana desagertu egin da
- Tabernak topagune dira, baina oso maskulinizatuta daude
- Herri eta auzoetako jaiak funtsezkoak dira; unean unekoak eta sexistak dira, baina hala ere, emakumeentzat parte hartzeko aukera dira. Emakume horien protagonismoa azpimarratzeko espazioa izan daiteke.

### 3. Erakundeekiko harremana, zerbitzuak kontaktatzea

Adinak eta egoerak zerikusi handia dute (mendeko pertsonak zaintzea, ama, eskolako espazioak, nagusia bada eta mugitzeko arazoak baditu, analfabetismo funtzionala...). Emakumeek, oro har, oso harreman txikia dute erakundeekin,



zerbitzuetako asistentziaren kasuan izan ezik, erabiltzaileak, alegia (kiroldegia, kasu).

Osasunari dagokionez, medikuarenerako ohiko bisita ez diren hitzorduetan (odola atera, ekografia...) asko mugitu behar dira. Batzuetan, luzaroan "pairatzen" dituzte arazo edo ondoezak, beste udalerrri batzuetara ez joateagatik.

Sarritan, erabakiak hartzen diren lekuetatik hurbil dauden tokietan lehenesten dira politika publikoak, biztanle gehien dagoen

tokietan ("boto-emaile potentzial gehiago"), hau da, udalerrriaren erdigunean. Esaterako: argiak erdigunean kokatzea soilik, edo Asiako liztorren erlekumeak kentzea erdigunean bakarrik... Ekonomiarekin zirikusia duten gauza guztietarako irispidea zailagoa da emakumeentzat. Zerbitzu horiek ordaindu egin behar badira, gainera, askoz zailagoa da. Azken finean, herrigunetik kanpo bizi izatea askoz garestiagoa da (medikuarenera joateko ibilbidea, gas naturala ez da iristen, telefonia...); eta tokiko politiketan eragiteko gaitasuna txikiagoa da.

### DURANGALDERAKO LAN-PROPOSAMENAK

Azterketa hauetatik eratorritako proposamenak asko dira, eta horietako asko erakunde publikoei buruzkoak; batzuk tokikoak, beste batzuk orokorrakoak. Baina

prozesu honetan udaletatik egin zitekeen horretan zentratu nahi izan genuen; epe laburrean eta egunez egunekoan egin zitekeen horretan; baina erabaki politikoen, langile espezifikoaren eta baliabide ekonomiko zehatzen premia duten beste proposamen batzuetan ere bai.

<b>Hasteko</b>
-Ezer baino lehen: Gure aliatu izan daitezkeen emakume baserritarrak identifikatzea. Horretarako, inguruaren diagnostikoa egitea proposatu zen; eta ari da bidea egiten. Elorrion eta Abadiñon, parte-hartzeko ikerlan batekin hasi da prozesua; dagoeneko abian da eta Emakunderen beka baten zain dago.
<b>Sareak sortzea</b>
Udalerrri bakoitzeko emakume baserritarrak identifikatutakoan, haien artean eta erkidegoaren eta erakundearen artean sareak eraikitzea da helburua, haien bizimodua hobetzeko. Arreta berezia egiten zaio indarkeria-mota guztiak desagerrarazteari eta informaziorako irispideari, besteak beste.
<b>Identifikaziorako zenbait gako:</b>



- Emakumeen errealitate bereziak kontuan hartzea.
- Baserrien jabeez gain, bertako etxeko-langileez ere ari gara eta.
- Herrian talde feministak identifikatzea eta harreman naturalak sortzea
- Sare horietarako beharrezkoak dira tokiko baserritarren taldeak ere (*agroasanbladak*, sindikatuak, label-elkarteak edo antzekoak...)

#### Sareak sortzeko hainbat ideia:

- Udalean auzoetako dinamizatzaillearen figura sortzea; auzoak berreskuratzeko eta energia txertatzeko ideia paperean jartzeko.
- Auzoetako batzordeak eta bilerak indartzea
- Gaiarekin zerikusia duen argazki-erakusketa bat, taldean osatua, emakumeak hurbiltzen joateko
- Errezetak biltzea, ondoren sukaldaritza-tailerrak egiteko...
- Dagoeneko badiren sare informalak identifikatzea eta baliatzea
- Sektoreari buruzko tailer praktikoak antolatzea, eta ondoren beste gai batzuei buruz hitz egiteko erabiltzea.

#### Kontuan hartu beharrekoak:

- Prozesuak malgua eta etengabea izan behar duela ulertzea
- Parte hartzeko moduekin malgutasunez jokatzeko
- Alderdi ludikoa eduki behar du
- Baserritar profesionalaren eredutik irten, eta landa-eremuan bizi eta lurrarekin harremana duten (autokontsumorako ortuak, animaliak,...) emakumeak ere atxiki behar dira.

#### Jarduerak antolatzeko:

- ✘ Kontuan hartu baserri-eremuko denborak: jarduerak, kuotak
- ✘ Jarduerak auzoetara ere eramatea. Zentralismo-logikak haustea, jarduera ibiltariak pentsatzea.
- ✘ Hartzaileak zein diren kontuan hartzea, haien beharrianak betetzeko.
- ✘ Eskaerak eta proposamenak parte-hartzeko agendetan txertatzea: haiekin jarduerak antolatzea.
- ✘ Antolatzen diren jardueretan garraioa bermatzea
- ✘ Emakume baserritarren eskubideei, titulartasun partekatuari, estatutuari, eta abarri buruzko hitzaldiak eta informazioa ematea.
- ✘ Emakume baserritarren duintasuna berreskuratzea: ahalduntze-eskoletan ikastaroak proposatzen direnean, emakume baserritarren ezagutzak baliatzea.
- ✘ Elikagaiak ekoizteko lana balioestea: edukietan eta praktiketan jaso.

#### Garraioa

- ✘ Auzo-taxiek funtzionatzen dute eta parte-hartzea handitzen dute.
- ✘ Garraio kolektibo eta solidarioa antolatzea
- ✘ Elorrion, garraiorako beka handitzea, mediku-gastuetan, bizimodu-sozialak eta abarrek eragindako gastuetan laguntzeko.

### Espazio sozialak

- ✘ Auzolana berreskuratzea, eta emakume baserritarren lana azpimarratzea.
- ✘ Emakume baserritarren eta kanpotik baserrietara bizitzera etorri diren emakumeen arteko sareak sortzen ahalegintzea.
- ✘ Emakumeentzat garrantzitsuak izan diren espazioak berreskuratzea: merkatuak
- ✘ Tokiko produktuak sustatzea eta haien merkaturatzea modu askotan bultzatzea
- ✘ Hiriko feminismoarekin aliantzak sortzea

### Data adierazgarriak:

- ✘ Jaien ezaugarriak birmoldatzea, emakumeak balioetsiz eta baserriko lanei protagonismoa emanez
- ✘ San Blas, Abadiño: jai ez-sexistak izateko parte-hartzeko proiektu bati ekingo diogu. Landa-eremuko emakumeei deia luzatuko zaie, parte har dezaten.
- ✘ Martxoaren 8an, landa-eremuko emakumeekin zerikusia duen zerbitzu antolatzea.
- ✘ Elikagaiak ekoizteko lanaren balioa azpimarratzea jaietan edo jardueretan, bertako baserritarrei erostea eta horren berri ematea.

### Formazio-lana

- ✘ Emakume baserritarren lana bultzatzea eta balioestea hezkuntzatik bertatik: neskek etorkizunean baserritar izan nahi izatea sustatzea.
- ✘ Tailer praktikoetan eduki politiko, eztabaida gehiago sartzen ahalegintzea, emakume gazteenek desberdintasun-egoerak identifika ditzaten.
- ✘ Gizonentzako formazioa
- ✘ Baserritarren ezagutza baliatzea, eta emakume baserritarrak tailerrak ematen jartzea
- ✘ Formazio-ekintzak auzoetara eta landa-eremuetara eramatea.

### Hain zuzen, Durangaldeko udaletatik:

#### Durangaldean emakumeen kontrako indarkeria kasuetan jarduteko eta koordinatzeko II. protokoloari dagokionez<sup>2</sup>

- ✘ Protokolo hori 2017ko azaroaren 25ean argitaratu zen. Berari jarraikiz, mahai orokorra eta udaletako mahaiak antolatu dira. Berdintasun-teknikariek emakumeen gaia udaletako mahaietan lantzea proposatzen dute, gizarte- eta udal-langileekin...

- ✘ Sozializatzeko unean, baserriarregana iritsi beharra azpimarratzea. Auzoetara joatea, baserriarrak etor daitezen itxaron gabe.
- ✘ Protokoloa modu ulergarrian helarazi behar da, tresna erabilgarria izan behar du. Beste alde batetik, erreferentziazko pertsonak behar dira, inplikatu eta protokoloa zabaltzen laguntzeko.
- ✘ Durangaldeko landa-eremuetako emakumeen egoerari eta haien benetako premiei buruzko ikerlana egitea.
- ✘ Guretzat emakume baserritarra zer den zehaztea: beharizanak aipa daitezke soslaian arabera, eta jarduerak bideratzen lagundu.
- ✘ Landa-eremuan izan litezkeen eskubide-urraketen egoerei erreparatzea: hautematea, identifikatzea, alarma piztuta edukitzea: partekatzea, dokumentatzea.

### Erakundeentzako lana (udalak eta mankomunitatea):

- ✘ Emakume baserriarren egoerari buruzko informazioa jasotzea
- ✘ Udaletan, landa-eremuetako emakumeei buruzko diziplinarteko formazioa ematea.
- ✘ Lege-markoei buruzko informazioa jasotzea eta tokian tokian nola gara daitezkeen aztertzea (Emakume Nekazarien Estatutua, Nekazaritzako ustategien titulartasun partekatuari buruzko legea...) Ideia bat izan daiteke udaletan nekazaritza alorreko aholkularitzak sortzea, lege horien aplikazioa sustatzeko eta laguntzei, baliabideei eta abarri buruzko informazioa eman eta gestioak egiten laguntzeko, beste erakunde batzuekin lotzeko...
- ✘ Udalerrietan, ustategien titulartasunari buruzko diagnostikoa egitea eta alderik badagoen aztertzea.
- ✘ Gai horren inguruan erakundeek sare-lana egitea, beste arlo eta batzorde batzuk gehituta.
- ✘ Elorrioko udaleko AUZOAK arloan berdintasun-politikak lehenesteko lan egitea.
- ✘ Eztabaida horiek Abadiñoko landa-garapeneko arloan txertatzea.
- ✘ Emakume baserriarrei dagozkien bestelako erabakitze organoak ere gehitzea: kontrol erakundeak (OCA), landa-garapena... Berdintasun-teknikariaren eta landa-garapeneko arloaren arteko agenda partekatua proposatu da.
- ✘ Udalean berdintasun-arloko araudia baldin badago, lanaren parte bat eginda dago. Erabaki politikoak hartzen, aurrekontuak adosten, eta abarren nola eragin ikusi behar da.
- ✘ Jende guztiarentzat udalak egiten dituen kanpainak baserrietara ere iristen direla bermatzea, eta baserriarentzako edukiz jantzi eta baserrietako errealitatetara ere eramatea.
- ✘ Auzoetako ekimenak edo ekimen feministak jaso eta zabaldu behar ditu udalak, informazioa eta deialdien berri eman behar dute.
- ✘ Udal-irratia sortzea edo daudenak erabiltzea hedabide desberdin edo interesgarri

gisa.

- ✘ Udaletako teknikariak eta gizarte-langileak auzoetara joan daitezen bultzatzea.
- ✘ Emakumeentzako espazio fisiko propioak lortzea: espazio bat izan daiteke, edo espazio mistoetan denbora jakin batzuk gordetzea.
- ✘ Udaleko eztabaida-foroetan emakume baserritarrak egongo direla bermatzea. Emakumeen denboren gaia nolakoa den ikusita, haien ahotsa entzuteko beste modu batzuk pentsatu beharko lirateke. Protagonista senti daitezen ahalbidetu behar zaie. Alderdi informalarri garrantzi politikoa eman behar zaio.
- ✘ Landa-eremuaren irudia hobetu behar da, eta nekazaritza sektoreari jende gehiago atxikitzea bultzatu behar da.

## METODOLOGIA: PROZESUA ERREPLIKATZEKO MATERIAL ERABILGARRIAK

### 1. TAILERRA: EMAKUME BASERRITARREK PAIRATZEN DITUZTEN INDARKERIAK IDENTIFIKATZEKO

**Helburuak.** Emakume baserritarren zaugarritasun-egoera kontuan hartuta, udaletatik garatu eta inplementatu ahal izango diren neurriak eta estrategiak diseinatzea.

**Gonbidatuak.** Etxaldeko Emakumeak taldeko emakumeak, Durangaldeko berdintasun-teknikariak, teknikariek herrietan identifikatuta dituzten emakume *aliatuak*.

#### Metodologia:

*Bileraren aurretik:* landutako txostena bidaltzea aurretik irakurtzeko

*Bileran:*

20 min. Aurkezpenak
10 min. Txostenen aurkezpen laburra
1 ordu. Askotariko zapalkuntza-sistema azaltzea eta emakume baserritarrek pairatzen dituzten indarkeria politiko/ekonomiko/sinbolikoei buruzko eztabaida (lehenengo talde txikitan, eta ondoren denen artean).
Galdera pizgarriak: <ul style="list-style-type: none"> <li>✘ <i>Denboraren kudeaketari dagokionez, zein da emakume baserritar baten eta baserritar ez den emakume baten eguneroko lan-zamaren arteko aldea?</i></li> <li>✘ <i>Zertan da desberdina bizimodu soziala, beste emakume batzuekin elkartzea?</i></li> <li>✘ <i>Erakunde eta zerbitzuekiko harremanari dagokionez, zertan da desberdina?</i></li> <li>✘ <i>Hezkuntza-sistemaren barruan: ikastegiak, komunikabideak... Zein da aldea?</i></li> <li>✘ <i>Zein da emakume baserritarrari buruz dugun irudia? Estereotipoen zerrenda</i></li> </ul>
45 min. Txostenetako puntu nagusiak talde txikitan banatzen ditugun orrietan jaso, talde bakoitzak nahi duen gaia aukeratuko du, eta udaletik egoera hori nola alda daitekeen pentsatuko du, emakumeek zer egin dezaketen, ametsak...
45 min. Neurri horiek adostu eta denbora-lerro batean kokatuko ditugu: zein aplikatu daitekeen orain, eta zein epe ertain edo laburrean.
30 min. Taldean ondorioak ateratzea.
15 min. Saioaren balorazioa. Nola sentitu garen. Erabilgarria iruditu zaigun.

*Tailerraren ondoren:* Informazio guztia bildu, eta parte-hartzaileei helarazi, bai eta interesa izan arren parte-hartzerik izan ez dutenei ere.

## 2. TAILERRA: BILDUTAKOA KONTRASTATZEA ETA TRESNAK ERAIKITZEA

**Helburua.** Une horretara arte egindakoa entzule gehiagorekin kontrastatzea eta politika publiko zehatzak eta politika horiek abian jartzeko ikusten diren aukerak sustatzen sakontzea.

**Gonbidatuak.** Berdintasun-teknikariak, zinegotziak, udaleko beste teknikari batzuk, bertako talde feministak, emakume baserritarrak, Etxaldeko Emakumeak.

### **Metodologia:**

*Tailerraren aurretik:* lehenengo tailerreko informazioa helarazi, aurrez irakurtzeko.

*Tailerrean.*

20 min. Aurkezpenak
40 min Etxaldeko Emakumeak taldearen, une horretara arteko prozesuaren eta ondorioen eta abian diren beste prozesu batzuen aurkezpena.
1 ordu. Taldeko lana, beste dokumentu batzuk kontrastatzeko eta gure herriari buruz hitz egiteko. <ul style="list-style-type: none"><li>✘ <i>Nola jarriko ditugu abian proposamen hauek gure herrian?</i></li><li>✘ <i>Bururutzen al zaigu bestelako neurririk?</i></li><li>✘ <i>Zer baldintza behar ditugu abian jartzeko?</i></li><li>✘ <i>Noiz hasi ahal izango dugu lanean?</i></li></ul>
30 min. Bateratze lana.
15 min. Balorazioa eta amaiera.

## PARTE HARTZEKO PROZESUA IZATEKO GOMENDIO OROKORRAK

- Emakume baserritarrentzako jarduerak edo neurriak diseinatzeko parte hartzeko metodologiak gomendatzen ditugu, berdintasun-teknikariek egiten duten lanetik abiatuta.
- Ezaugarri horietako prozesu bat urtebeterako proposatu behar da, hainbat topaketa egiteko denbora izateko. Aipatu dugun esperientzia honetan bi tailer egin ziren, eta hainbat hilabete iraun zuen komunikazio eta solasaldi prozesu bat, baina prozesu bakoitzak epe desberdinak izan ditzake, eta batzuetan, tailer gehiago ere behar izango dira.
- Garrantzitsua da berdintasun-teknikariek eskura edukitzea emakume baserritarrei buruzko txosten edo datuak.
- Gomendagarria da tailer hauetan parte hartzeko gonbita beste zinegotziei ere helaraztea.

## BIBLIOGRAFIA

**Legeen azterketa ikuspegi baserritar eta feministatik.**

Etxaldeko Emakumeak, 2018.

**Antolatu, landatu eta gozatu.**

Etxaldeko Emakumeak, 2018

**Bizkaiko landa-eremuan, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek laguntza, arreta eta justiziarako zerbitzu eta laguntzetara benetan iristeko izan dituzten premien eta eragozpenen identifikazio-txostena.** Bizkaiko Foru Aldundia, 2015

**Arabako landa-ingurunean genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek laguntza, arreta eta justizia zerbitzu zein prestazioetarako benetako sarbidea izateko dituzten beharrianak eta oztopoak identifikatzea.** Argituz, *Giza eskubideen aldeko Elkarteak egindako azterlana.*

**Landa-gapenean eta nekazaritzan generoaren araberako inpaktuaren ebaluazioa.**

Emakunde, 2012

**Emakumeak euskal landa-eremuan.**

Hazi, 2016



**ETXALDEKO**



**EMAKUMEAK**